

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3557

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko esnetarako behien abeltzaintza-ustategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzei buruzko maiatzaren 29ko 100/2012 Dekretuan ezarritako 2014. urteko laguntzetarako dei egiten duena.

2012ko ekainaren 25ean, Euskal Autonomia Erkidegoko esnetarako behien abeltzaintza-ustategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzei buruzko maiatzaren 29ko 100/2012 Dekretua argitaratu zen. Dekretu honen bidez, esnetarako behien abeltzaintza-ustategiei lagundu nahi zaie. Laguntza horiek jaso ahal izateko, abereen ongizatea hobetzeko neurriak hartu beharko dituzte, eta neurriok arlo honetan dagoeneko nahitaezkoak direnak baino eskakizun handiagoak izan beharko dituzte.

Agindu honen bidez, 2014. urterako laguntzetarako deia egin nahi da, maiatzaren 29ko 100/2012 Dekretuaren 6. artikularekin bat etorriz. Artikulu horren arabera, nekazaritza eta abeltzaintza arloetan eskumena duen saileko pertsona titularrak egingo duen agindu baten bidez, dekretu honetan jasotako laguntzen deialdia egingo du, eta hala, eskabideak aurkezteko epea zabalduko da. Laguntza horiek jasotzeko gutxienez 5 urteko kontratua sinatu behar denez, bereizketa egiten da laguntza lehenengo aldiz eskatu dutenen eta konpromisoa sinatu aurreko ekitaldietan eskatu dutenen artean.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Araubideari buruz indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bategina onetsi duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko Aurrekontu Orokorrak onetsi dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legeak bide ematen dute aurtengo laguntzen deialdia egiteko.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdia.

Agindu honen bidez, esnetarako behien abeltzaintza-ustategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzei buruzko maiatzaren 29ko 100/2012 Dekretuan ezarritako laguntzetarako dei egiten da, 2014. urteari begira.

Bigarrena.– Eskabideak aurkeztea.

Laguntza-eskabideak eta aurreko ekitaldietan hartutako konpromisoen urteko ordainketa-eskabideak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari bidali behar zaizkio. Nekazaritzako Eskualdeetako Bulegoetan edo Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailko bulegoetan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako beste edozein tokitan, agindu honetako eranskinetan dauden eskabide-ereduekin bat etorriz. Eredu edo inprimaki horiek Nekazaritzako Eskualdeetako Bulegoetan eta www.nasdap.ejgv.euskadi.net web-orrian daude eskura.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa egongo da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Laugarrena.– Dokumentazioa.

1.– Laguntzak aurreneko aldiz eskatzen dituztenek agindu honetako II. eranskineko ereduaren arabera aurkeztu beharko dute eskabidea, dokumentazio honekin batera:

- Erreferentzia kopuruaren titularraren NAN. Ustiategi asoziatiboa bada, erakundearen IFKaren kopia.

- Nekazaritza-ustiategiaren txartel-zenbakia.

- Programa hau kudeatzen duen organoak automatikoki egiaztatuko du Gizarte Segurantzarekiko kotizazio-betebeharrak betetzen diren eta dagokion foru-ogasunari ordaindu beharreko zergak egunean dauden.

- Nekazaritza-politika bateratuaren (NPB) zuzeneko laguntzak eskatzeko epea amaitzean ustiategian dauden abereen errolda. Ustiategia errendimendua kontrolatzeko programa bati atxikita egonez gero, atxikipenaren egiaztatzea, programa hori kudeatzen duen erakundeak emandakoa. Laguntza horiek kudeatzen dituzten administratzaileek eman ahalko dituzte datu horiek, baldin eta haien esku badaude.

- Erantzukizunpeko adierazpena, hau guztia adierazteko: eskabidean jasotako informazioa egiazkoa dela; bestelako administrazio edo entitate publiko eta pribatuetatik helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso dituela, edo ez; ez dagoela lehen jasotako laguntzaren bat itzultzeko prozedura baten edo zigortzeko prozedura baten eraginpean edo prozedura hori amaitu dela; ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzea galarazten dion administrazio edo zigor arloko zigorririk eta legezko debekuririk; aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla.

- Halaber, zer neurrirentzako laguntza eskatzen den, neurri horietako bakoitzaren dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko da. Maiatzaren 29ko 100/2012 Dekretuaren I. eranskinean esaten da zer dokumentazio dagokion neurri bakoitzari.

2.– Laguntzak aurreko ekitaldian ere eskatu eta dagokion konpromisoa sinatu dutenek urteko ordainketa-eskabidea aurkeztu beharko dute, agindu honetako III. eranskineko ereduaren arabera, dokumentazio honekin batera:

- Hartutako konpromisoak betetzen dituela eta hori egiaztatzeko kontrolak egiten dituela dioen zinpeko adierazpena.

- Nekazaritza-politika bateratuaren (NPB) zuzeneko laguntzak eskatzeko epea amaitzean ustiategian dauden abereen errolda. Ustiategia errendimendua kontrolatzeko programa bati atxikita egonez gero, atxikipenaren egiaztatzea, programa hori kudeatzen duen erakundeak emandakoa. Laguntza horiek kudeatzen dituzten administratzaileek eman ahalko dituzte datu horiek, baldin eta haien esku badaude.

- Laguntza lehenengo aldiz eskatzean egindako adierazpenetan eta aurkeztutako agirietan egon diren aldaketak, halakorik egon bada.

Bosgarrena.– Diru-laguntzen zenbateko osoa.

1.– Agindu honen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura 2014ko ekitaldian eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa, guztira, 500.000 euro da.

2.– Erabaki honetan ebatzitako diru-kopuru osoa gehitu daiteke, indarrean dagoen legerian kredituak lortzeko edo aurrekontuak aldatzeko aurreikusten den erregimenari jarraiki. Kasu horretan, eta laguntzak ebatzi aurretik, horren berri emango da, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordearen ebazpen bitartez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dena.

Seigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek bukaera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa jar diezaioke interesdunek Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta biharamunean hasiko da epea.

Zazpigarrena.– Ondorioak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 30.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

NEURRI ETA KONPROMISO BAKOITZARI DAGOKION DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

Artzaintzako neurria

- Txosten teknikoa.
- NPB, larre-eremuaren mugak.
- Abere kopurua, helduak > 2 urte, bazkatuko dutenak, foru-aldundiaren zerrenda ofiziala edo esnea kontrolatzeko kontrol ofizialak egindako jezteko behien zerrenda, eskabidea egiten denekoa.
- Kudeaketa-plana eta honako hauen deskribapena: hasiera-data, erabiltzekoak diren lurzati edo laborantza-unitateetan egingo diren txandakatzeak eta amaiera-data.
- 120 egunetan atera izanaren froga.
- «Larreratzeak» erregistro-liburuaren deskribapena.
- Larrera ateratako egunen eta salbuespenen erregistro-liburua.

Patia

- Txosten teknikoa.
- Patia-eremuaren egoeraren krokisa, eta ahal bada, SIGPAC erreferentzia eta argazkia (nekazaritza-partzeletako identifikazio geografikoaren -sistema). Azalera.
- Abere kopurua, helduak > 2 urte, foru-aldundiaren zerrenda ofiziala edo esnea kontrolatzeko kontrol ofizialak egindako jezteko behien zerrenda.
- Kudeaketa-plana, eremuaren deskribapena, abere kopurua eta abereak zenbat aldiz ateratzeko asmoa duten.
- Erregistro-liburua.
- Patia ateratzen diren egunen eta salbuespenen erregistro-liburua.

Patologiaren zaintza eta prebentzio metodikoa

- Abereak zaintzeko bitartekoak izatearen froga, argazkia eta egoeraren krokisa.
- Informazioa gordetzeko eta berrikusteko sistema.
- Emandako informazioaren eta informazio aztertu ondoren egindako lan-protokoloaren deskribapena.

Etzaleku kopurua murriztea (1-1)

- Kokalekuaren eta egoeraren argazkia eta krokisa.
- Etzaleku kopurua.
- Abereen errolda, aurkeztutakoa, foru-aldundiaren zerrenda ofiziala edo esnea kontrolatzeko kontrol ofizialak egindako jezteko behien zerrenda.

Etzaleku kopurua murriztea, leku itxiak hobetzea

- Etzalekuaren egoeraren argazkia eta krokisa.
- Aldaketaren bat eginez gero, gero-egoeraren planoa edo krokisa, eta aldaketa egin osteko argazkiak.

Koltxoneten mantentze-lanak

- Mantentze-lanen deskribapena.
- Etzaleku kopurua.
- Material lehorgarriaren edo desinfektatzailearen deskribapena.
- Egindako lanaren deskribapena.

Arrobaderak

- Argazkia eta krokisa.
- Funtzionamendu-plana, sistemaren deskribapena eta egunero zenbat aldiz pasatzen den.

Eskuilak

- Argazkia eta krokisa.
- Funtzionamendu-plana eta kokalekua.

Aireztapena eta hezedura

- Egoeraren argazkia eta krokisa.
- Funtzionamendu-plana, nola eta zenbat denboran aktibatuko diren, etab.

Hankak garbitzeko eremua

- Argazkia eta krokisa.
- Erabiltzeko plana eta kokalekua.

Askak

- Argazkia eta krokisa.
- Erabiltzeko plana eta kokalekua.

2014ko abuztuaren 19a, asteartea

II. ERANSKINA

USTIATEGIARI BURUZKO DATUAK

USTIATEGIAREN KODEA

E

S

TITULAR ORDEZKARIA

IFZ edo IFK

IZENA EDO SOZIJETATEAREN IZENA

DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

UDALERRIA

POSTA-
KODEAL.
HISTORIKOA

TELEFONOA

BANKU-DATUAK

KONTUAREN edo AURREZKI-LIBRETAREN ZK.

BAIMENA EMATEA

Baimena ematen diot Ingurumen, Lurralde Plagintza Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari organo eskudunengandik ondorengo informazioa skuratzeko:

Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean nagoela egiaztatzen duen informazioa.

KONPROMISOA:

- Edozein agintari eskudunek, laguntzak emateko arauzko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko xedez egiten dituen kontrolak errazten laguntzea.
- Agintari eskudunak hala eskatuz gero, itzuli egingo dira behar ez bezala jasotako laguntzak edo aurrerakinak.

ADIERAZTEN DU:

- Eskabide honetan eta erantsitako inprimaketan adierazi eta jasotako datu guztiak egiazkoak direla.

.....(e)n,.....(e)ko.....aren(e)an.

ESKATZAILEAREN SINADURA

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ZUZENDARI JAUNA – EUSKO JAULARITZA

ABEREEN ONGIZATEA HOBETZEKO KONPROMISOAK

Eskatzailea:

A1.– Esne errendimendua kontrolatzeko programa bati atxikitako esnetarako abelgorrien ustiategia.

Abere kopurua



A2.– Esne-errendimendua kontrolatzeko programa bati atxikita ez dagoen esnetarako abelgorrien ustiategia.



a) Larreetara eramatea, baldintza hauetan

- 1.– Larrean daudenean, behi bakoitzeko 0,25 ha behar da gutxienez.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromiso hauek hartu behar dituzte:
 - Behiak bazkatzera aterako dituzte, eguraldiak uzten ez duenean izan ezik. Urtean 120 egunetan aterako dituzte gutxienez.
 - Erregistro-liburu bat izango dute. Bertan, idatzita jasoko dute eguraldi txarra noiz egin duen eta zer abere gaixotu diren.
 - Behiak ateratzeko partzelak txandakatzeko plan bat egingo dute, bai eta jarraipena egiteko plan bat ere, aldiko eta eguneko, larrean behi kopuru egokia egon dadin eta larrean belar ona egon dadin.

b) Ibiltzeko eta lasai egoteko lekua.

- 1.– Instalazioetan, gutxienez 12 m²-ko eremua egon beharko da ALUko, abereak lasai egon eta ibil daitezten.
- 2.– Instalazioetan halako eremurik ez badago, kanpo-patio bat egon beharko da, barruko eta kanpo-patioko azalera batuta 12 m² egon daitezten ALUko. Halakoetan, abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromiso hauek hartu behar dituzte :
 - Behiak bazkatzera aterako dituzte, eguraldiak uzten ez duenean izan ezik.. Urtean 156 egunetan aterako dituzte gutxienez (edozein sasoiotan).
 - Patioa egoera onean zainduko dute.
 - Erregistro-liburu bat izango dute. Bertan, idatzita jasoko dute eguraldi txarra noiz egin duen eta zer abere gaixotu diren.

c) Patologiaren zaintza eta prebentzio metodikoa

- 1.– Jezteko robotak eduki beharko dituzte, edo eroankortasun-neurgailuak dituen areto bat, edo podometroak, edo lepokoak, edo abereen osasunaren bana-banakako jarraipena egiteko edozein sistema informatizatu.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromisoa hartu behar dute jezteko robotak edo sistema informatizatuak emandako datuak zaintzeko, aztertzeko eta gordetzeko, bai eta gaixotasunak prebenitzeko eta sendatzeko neurriak hartzeko ere.

d) Ukuiluan etzaleku gehiago egitea

- 1.– Zenbat jezteko behi, hainbat etzaleku egon beharko dira, edo gehiago.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromiso hauek hartu behar dituzte: jezteko behien kopurua etzalekuen kopurua baino txikiagoa izango da edo/eta korridore itxiak kenduko dituzte, edo ez dituzte erabiliko.

e) Bigungarritz babestutako eremuak

- 1.– Etzalekuen azpian edo azpi beroetan, koltxonetak edo bigungarritz estalitako eremuak egon beharko dira.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromisoa hartu behar dute bigungarritz estalitako eremuak egoera onean eta garbi mantentzeko.

f) Aireztapena eta hezedura

- 1.– Esparruaren ezaugarrien eta tamainaren araberako aireztagailuak, erauzgailu estatikoak edo lainoztagailuak eduki behar dira.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromisoa hartu behar dute aireztagailuak, erauzgailu estatikoak edo lainoztagailuak behar bezain beste denboran martxan jartzeko, esparrua behar bezala airezta eta heze dadin.

g) Arrobaiderak edo parrilak garbitzeko robota

- 1.– Esparruaren ezaugarrien eta tamainaren arabera arrobaiderak edo parrilak garbitzeko robota eduki behar dira.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromisoa hartu behar dute arrobaiderak edo robota egunean gutxienez 3 aldiz pasatzeko.

h) Eskuilak

- 1.– Behar beste eskuila eduki behar dira.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromisoa hartu behar dute eskuilak egoera onean eta garbi mantentzeko.

i) Askak

- 1.– Jetzi aurretik behiak egoten diren itxaron-gelan, askak egon behar dira.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromisoa hartu behar dute askak egoera onean eta garbi mantentzeko.

j) Hankak garbitzeko eremua

- 1.– Hankak garbitzeko eremu bat eduki behar da. Apatxetan patologia prebenitzeko, hankak jetzi aurretik eta ondoren garbitu behar zaizkie.
- 2.– Abeltzaintza-ustiategietako titularrek konpromisoa hartu behar dute hankak garbitzeko eremua egoera onean eta garbi mantentzeko eta erabilitako produktua dagokion espezifikazio teknikoaren arabera aldatzeko.

ERANTSITAKO AGIRIAK
(hala badagokio)

- Ustiategiko titularraren edo titularren NANaren edo IFKren fotokopia.
- Nekazaritzako ustiategi-txartelaren fotokopia.
- Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuaren ziurtagiria, 2014ko apirilaren 1ean, bi urtetik gorako behi kopurua adierazita.
- Eskabidean ageri diren bankuko datuak aldatu badira edo eskabidean halako daturik ez badago, Hirugarrenaren Alta Agiria bete behar da. Enpresak eta finantza-erakundeak behar bezala sinatu eta zigilatu behar dute agiri hori, eta ustiategiaren titularraren NANaren fotokopia batekin batera aurkeztu behar da.
- Esetarako behi-azientaren elkartearen ziurtagiria, ustiategia 2014ko urtarrilaren 1ean altan emanda dagoela adierazteko.
- Ustiategian dauden TNNen justifikazio-agiriak..

2014ko abuztuaren 19a, asteartea



III.ERANSKINA
ESNETARAKO BEHIEN ABELTZAINZA-USTIATEGIETAN ABEREEN
ONGIZATEA HOBETZEKO URTEKO LAGUNTZA JASOTZEKO ESKABIDEA - 2014

USTIATEGIARI BURUZKO DATUAK

USTIATEGIAREN KODEA TNN Zk.

USTIATEGIAREN TITULARRA

IFZ edo IFK

IZEN ETA DEITURAK EDO SOZIETATEAREN IZENA GIZON EMAKUME

ORDEZKARI LEGALA (NAN - Izen eta Deiturak)

HELBIDEA

HERRIA

UDALERRIA POSTA-KODEA

L. HISTORIKOA TELEFONOA

KONPROMISOA:

- Edozein agintari eskudunek, laguntzak emateko arauzko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko xedez egiten dituen kontrolak errazten laguntzea.
- Agintari eskudunak hala eskatuz gero, itzuli egingo dira behar ez bezala jasotako laguntzak edo aurrerakinak.

ADIERAZTEN DU:

- Hartutako konpromiso guztiak betetzen dituela eta hori egiaztatzeko egiten diren kontrolak onartuko dituela.
- Eskabide honetan emandako datu eta eduki guztiak eta eskabidearekin lotutako komunikazio guztiak egiazkoak direla; beste administrazio edo publiko edo pribatu batzuek helburu bererako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrerak edo baliabideak jaso baditu, hala adieraziko duela; prozedura zigortailerik edo diru-laguntzak itzultzeko prozedurarik irekita ez daukala edo bukatuik daukala, Pertsona edo erakunde eskatzailea ez dagoela laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio- edo zigor-arloko zehapen baten pean, edo ez daukala horretarako legezko debekurik; aurkeztutako dokumentu guztiak egiazkoak direla. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari baimena ematen dio hori guztia egiaztatzeko.

BAIMENTZEN DIO:

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, organo eskudunengatik ondorengo informazioa eskuratzeko: zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak ordainduta dituela egiaztatzen duen informazioa, ustiatzearen abereen eroldakoa eta esnearen kontrolekoa.

AURKEZTEN DU:

- Titularren NAN
- Nekazaritza-ustiatzearen txartela

.....(e)n,.....(e)ko.....aren(e)an.

ESKATZAILEAREN SINADURA

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ZUZENDARI ANDREA – EUSKO JAURLARITZA



HARREREI BURUZKO NEURRIAK ETA KONPROMISOAK ALDATZEA

Neurri-zenbakia	A/B	Arrazoa
a) Larreetara eramatea, baldintza hauetan		
b) Ibiltzeko eta lasai egoteko lekua		
c) Patologiaren zaintza eta prebentzio metodikoa		
d) Ukuiluan etzaleku gehiago egitea		
e) Bigungarri babestutako eremuak		
f) Aireztapena eta hezedura		
g) Arroba derak edo parrilak garbitzeko robota		
h) Eskuilak		
i) Askak		
j) Hankak garbitzeko eremua		
	A - Neurrien baldintzak aldatzea B - Neurri baxua	

NEURRI ETA KONPROMISO BERRIAK

a) Larreetara eramatea, baldintza hauetan

- Behi bakoitzeko, gutxienez 0,25 ha eskuragarri izatea
- Behiak bazkatzera aterako dituzte, 120 egunetan gutxienez, eguraldiak uzten ez duenean izan ezik
- Behiak larreratzeko sailak txandakatze plan bat egin
- Erregistro-liburu bat izango dute. Bertan, idatzita jasoko dute eguraldi txarra noiz egin duen eta zer abere gaixotu diren
- Jarraipen plan bat egin, egonaldiaren aldiko eta eguneko larrean behi kopuru egokia egon dadin eta larreak egoera onean mantendu daitezen

b) Ibiltzeko eta lasai egoteko lekua

- Instalazioetan eremurik ez badago, kanpoan patio bat egon beharko da, barruko eremuaren eta kanpoko patioaren azalera batuta. ALUko 12 m² egon daitezen
- Instalazioetan, gutxienez 12 m²-ko eremua egon beharko da ALUko, abereak lasai egon eta ibil daitezen
- Patia eduki ezker, behiak bazkatzera aterako dituzte, eguraldiak uzten ez duenean izan ezik, urtean 156 egunetan gutxienez
- Patia eduki ezker, erregistro liburu bat izango dute. Bertan, idatzita jasoko dute eguraldi txarra noiz egin duen eta zer abere gaixotu diren
- Patia eduki ezker, patio egoera onean zainduko dute

c) Patologiaren zaintza eta prebentzio metodikoa

- Jezteko robotak edo sistema informatizatuak emandako datuak zaindu, aztertu eta gorde, bai eta, beharrezko izan ezker, gaixotasunak prebenitzeko eta sendatzeko neurriak hartu
- Jezteko robotak eduki beharko dituzte, edo eroankortasun-neurgailuak dituen areto bat, edo podometroak, edo lepokoak, edo abereen osasunaren bana-banako jarraipena egiteko edozein sistema informatizatu

d) Ukuiluan etzaleku gehiago egitea

- Jezteko behien kopurua etzalekuen kopurua baino txikiagoa izango da edo/eta korridore itxiak kenduko dituzte, edo ez dituzte erabiliko
- Zenbat jezteko behi, hainbat etzaleku egon beharko dira, edo gehiago



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

- e) Bigungarriz babestutako eremuak**
 - Bigungarriz estalitako eremuak egoera onean eta garbi mantendu
 - Etzalekuetan koltxonetak edo bigungarriz estalitako eremuak egon beharko dira edo bestela, azpi beroa izan beharko dute
- f) Aireztapena eta hezedura**
 - Aireztagailuak, erauzgailu estatikoak edo lainoztagailuak behar beste denboran martxan jarri beharra, esparrua behar bezala airezta eta hezatu dadin
 - Esparruaren ezaugarrien eta tamainaren arabera aireztagailuak, erauzgailu estatikoak edo lainoztagailuak eduki behar dira
- g) Arroaderak edo parrilak garbitzeko robota**
 - Arroaderak edo robota egunean gutxienez 3 aldiz pasa
 - Esparruaren ezaugarrien eta tamainaren arabera arroaderak edo parrilak garbitzeko robota eduki behar dira
- h) Eskuilak**
 - Behar beste eskuila eduki behar da
 - Eskuilak egoera onean eta garbi mantendu
- i) Askak**
 - Jetzi aurretik behiak egoten diren itxaron-gelan, edontziak egon behar dira
 - Ur-askak eta edontziak egoera onean eta garbi mantendu
- j) Hankak garbitzeko eremua**
 - Hankak garbitzeko eremu bat eduki behar da. Apatxetan patologiak prebenitzeko, hankak jetzi aurretik edo ondoren garbitu beharra
 - Hankak garbitzeko eremua egoera onean eta garbi mantendu eta erabilitako produktua dagokien espezifikazio teknikoaren arabera aldatu

ERANTSITAKO AGIRIAK

- Ustiatetik bankuko datuak orain dela gutxi aldatu badira, Hirugarrenaren Alta Agiria bete beharko da. Enpresak eta finantza-erakundeak behar bezala sinatu eta zigilatu beharko dute agiri hori, eta ustiatetik titularraren NANaren fotokopia batekin batera aurkeztu beharko da
- Ustiatetik dauden TNNak frogatzeko dokumentuak

NEURRI BERRIEI ETA/EDO ALDAKETEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKIOA

a) Larreetara eramatea, baldintza hauetan

- Larreratzearen txosten teknikoa

b) Ibiltzeko eta lasai egoteko lekua

- Patioaren txosten teknikoa

c) Patologiaren zaintza eta prebentzio metodikoa

- Abereak zaintzeko bitartekoak izatearen frogak, argazkia edo egoera-krokisa
- Patologiaren zaintza eta prebentzio metodikoko informazioa gordetzeko eta berrikusteko sistema

**d) Ukuiluan etzaleku gehiago egitea**

- Etzalekuen egoeraren argazkia edo krokisa
- Etzalekuetan aldaketaren bat eginez gero, geroko egoeraren planoa edo krokisa, eta aldaketa egin osteko argazkiak

e) Bigungarriz babestutako eremuak

- Koltxoneten mantentze-lanen deskribapena

g) Arroaderak edo parrilak garbitzeko robota

- Arroaderen argazkia edo krokisa
- Arroaderen funtzionamendu-plana, sistemaren deskribapena eta egunero zenbat aldiz pasatzen diren

h) Eskuilak

- Eskuilaren argazkia edo krokisa
- Eskuilen erabilera-plana eta kokalekua

f) Aireztapena eta hezedura

- Aireztapen eta hezeduraren argazkia edo krokisa
- Aireztapen eta hezedura funtzionamendu-plana, nola eta zenbat denboran aktibatuko diren, etab.

j) Hankak garbitzeko eremua

- Hankak garbitzeko eremuaren argazkia edo krokisa
- Hankak garbitzeko eremuaren erabilera-plana eta kokalekua

i) Askak

- Ur-aska eta edontzien argazkia edo krokisa
- Ur-aska eta edontzien erabilera-plana eta kokalekua

**AURKEZTUTAKO BESTE DOKUMENTU BATZUK**

.....(e)n,.....(e)ko.....aren.....(e)an.

Iz:.....

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinarazten dizu inprimaki hau betetzean eman dituzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko. Aipatutako lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi badituzu, idazki bat bidal dezakezu helbide honetara: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.